

Zmz

HAUR ETA NERABEEN AHOTSA

www.gipuzkoangazte.eus



**Nola ebaluatzen
duten Gipuzkoako
haur eta nerabeek
beren ongizatea**

**EMAITZA
NAGUSIAK**



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta,
Gazteria eta Kirol
Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**



Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa



AURKIBIDEA

1

SARRERA

- Azterketa hau zergatik eta zertarako?
- Zer metodologia erabili da?
- Nork parte hartu du?

3

EMAITZAK ESPARRUETAN

- Familia-bizitza
- Ongizate materiala
- Osasuna
- Autonomia
- Eskola-bizitza
- Lagunak
- Aisia
- Auzoa/herria

5

EKINTZARAKO ORIENTABIDEAK

2

EMAITZA OROKORRAK

- Zer gogobetetze maila dute, orokorrean, bizitzarekiko?
- Nola hautematen dute beren ongizatea?

4

BESTE ALDERDI BATZUK

- Berdinen arteko indarkeria
- Sexu-hezkuntza
- Berdintasuna
- Euskararen erabilera
- Eskubideak

1. SARRERA



AZTERKETA HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

“Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa” Gipuzkoako haur eta nerabeen ongizate subjektiboaren maila ezagutzeko azterketa da.



Haurren eskubideen konbentzioarekin bat etorritik, Gipuzkoako haur eta nerabeen ahotsa entzun nahi izan da. Helburua da:

- EZAGUTU

Politika publikoak diseinatu eta ekintzak planifikatzeko orduan, haien ikuspegia, kezka eta proposamenak ezagutzea

- HOBETU

Zerbitzu eta baliabide lagunkoiagoak eta haien behar eta lehenetsunetara egokituagoak sustatzea

- DISEINATU

Haien ongizatea hobeto ezagutzeko tresna bat diseinatu eta testatzea

- MONITORIZATU

Haien ongizatearekin erlazionaturako zenbait parametroren bilakaera monitorizatzea



ZER METODOLOGIA ERABILI DA?

8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeei banakako, autoadministratutako eta online galdetegi bat aplikatu zaie, ikastetxeen laguntzarekin.

Nazioarteko *Children's Worlds International Survey of Children's Well-Being (ISCWeB)* inkestan oinarritutako galdeketa (8 esparru eta bestelako alderdi osagarri batzuk)



3 galdeketa desberdin, adinaren arabera:

	1. GALDETEGIA	2. GALDETEGIA	3. GALDETEGIA
Adina	8 eta 9 urte (edo premia bereziak dituztenak)	10 eta 11 urte	12 eta 14 urte
Mailak	Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak
Erabilitako eskalak	5 puntuko zenbakizko eskala (1-5) 5 puntuko Likert eskala	11 puntuko zenbakizko eskala (0-11) 5 puntuko Likert eskala	11 puntuko zenbakizko eskala (0-11) 5 puntuko Likert eskala
Galdera-kopurua	30	45	48



NORK PARTE HARTU DU?

Gipuzkoako udalerrri guztietako **66 ikastetxe** desberdinetako **10.178 haur eta nerabek** parte hartu dute.

Datuak adierazgarriak dira guztirako, eta errore-marjina % lekoa da. Sexuaren eta adinaren arabera ere adierazgarriak dira (% 5etik beherako akatsa).


Unibertsoa	8 eta 14 urte bitarteko Gipuzkoako biztanleak		
Parte hartu duten udalerrriak	68 (% 100)	Parte hartu duten eskualdeak	10 (% 100)
		Parte hartu duten ikastetxeak	66*
Laginaren tamaina	8 eta 9 urte 1.851	10 eta 11 urte 2.568	12 eta 14 urte 5.759
	10.178		
Lagin-errorearen marjina	+/- 0,9% (% 95eko konfiantza maila)		
Bilketa-metodoa	Online inkesta	Bilketa-aldia	Azaroaren 4tik abenduaren 12ra

2. EMAITZA OROKORRAK: Gipuzkoako haur eta nerabeen ongizate subjektiboa




ZER GOGOBEKETZE MAILA DUTE, OROKORREAN, BIZITZAREKIKO?

- Oro har, **oso pozik daude beren bizitzarekin**: pertsonen % 78,7 oso pozik daude. Hala ere, % 5,1ek oso gogobetetze txikia edo moderatua erakusten du.
- Maila apalxeagoak dituzte **neskek** (% 75,4 oso pozik daude) eta baita **12 eta 14 urte bitartekoek** (% 65,6 oso pozik daude). Nesken eta mutilen arteko aldeak, batez ere, 12 urtetik aurrera agertzen dira.
- Guraso bakarreko** familietan bizi diren pertsonak ez daude hain pozik (batez beste 8,2 puntu).








SEXUAREN ARABERA





- Oso handia / Muy alta (9-10) ■ Handia / Alta (7-8)
- Neurri batean / Moderada (5-6)
- Txikia edo oso txikia / Baja o muy baja (0-4)



ADINAREN ARABERA




- Oso handia / Muy alta (9-10) ■ Handia / Alta (7-8)
- Neurri batean / Moderada (5-6)
- Txikia edo oso txikia / Baja o muy baja (0-4)




NOLA HAUTEMATEN DUTE BEREN ONGIZATEA?

- **Nork bere buruaz hautematen duen ongizate-indize orokorra** 10etik 9 puntukoa da: % 69,9k puntuazio oso altuak ditu. Hala ere, % 8,4 oso maila baxuan edo ertainean dago.
- 12 urte besterik ez dutenak kontuan hartuta (8,8), Gipuzkoan erregistratutako tasa Europako beste **eskualde eta herrialde** batzuetakoaren oso antzekoa da: Katalunia (8,8), Espainia (8,7) edo Alemania (8,2).
- Balio baxuagoak dituzte **neskek** (% 68 oso puntuazio altuak) eta **nerabeek** (% 53,1 oso puntuazio altuak). Nesken eta mutilen arteko aldeak, batez ere, 12 urtetik aurrera agertzen dira.
- **Guraso bakarreko** familietan bizi direnek puntuazio txarragoak lortu dituzte (batez beste 8,1 puntu).



5 itemem arabera kalkulatuta: “bizitzan ondo doakit”, “bizitza ona dut”, “nire bizitzan gertatzen zaizkidan gauzak bikainak dira”, “nire bizitza gustatzen zait”, “nire bizitzaz gozatzen dut” eta “zoriontsu naiz nire bizitzarekin”.







SEXUAREN ARABERA

- Oso handia / Muy alta (9-10)
- Handia / Alta (7-8)
- Neurri batean / Moderada (5-6)
- Txikia edo oso txikia / Baja o muy baja (0-4)



ADINAREN ARABERA

- Oso handia / Muy alta (9-10)
- Handia / Alta (7-8)
- Neurri batean / Moderada (5-6)
- Txikia edo oso txikia / Baja o muy baja (0-4)



3. EMAITZAK ESPARRUETAN

ZER ESPARRUTAN DUTE GOGOBBETETZE MAILA HANDIENA? ETA TXIKIENA?

- Haurrak eta nerabeak oso pozik daude **familia-bizitzarekin** (9,4), **ongizate materialarekin** (9,4), **bizi diren auzo edo herriarekin** (9,2) eta beren **lagunekin** (9,2).
- Ez daude horren pozik:
 - **Aisiarekin** (8,6), bereziki **libre duten denborarekin** (8,3).
 - **Eskola-bizitzarekin** (8,6), bereziki **eskolan ikasitakoarekin** (8,4) eta **ikasle-bizitzarekin** (8,6).
 - **Autonomiarekin** (8,6), bereziki **helduek nola entzuten dituzten** (8,4) eta **zer seguru sentitzen diren** (8,6).
 - **Osasunarekin** (8,7), bereziki **beren gorputzarekiko gogobetetzearekin** (8,3).

ONGIZATEAREKIN ETA BIZI-KALITATEAREKIN

ERLAZIONATUTAKO ALDERDIEKIKO GOGOBBETETZE MAILA, DIMENSIO EDO ESPARRUEN ARABERA

FAMILIAN-BIZITZA / VIDA EN FAMILIA



9,4

Zurekin bizi diren
personak /
Personas con
las que vives

9,4

Batezbesteko gogobetetzea /
satisfacción media

ONGIZATE MATERIALA / BIENESTAR MATERIAL



9,5

Dituzun gauzak /
Las cosas
que tienes

9,4

Zure etxea /
La casa donde vives

9,4

Batezbesteko gogobetetzea /
satisfacción media

OSASUNA / SALUD



9,2

Zure osasuna /
Tu salud

8,3

Zure gorputza /
Tu propio
cuerpo

8,7

Batezbesteko gogobetetzea /
satisfacción media

AUZOA, HERRIA / ENTORNO



9,2

Zure herria edo auzoa /
El pueblo o barrio
donde vives

9,2

Batezbesteko gogobetetzea /
satisfacción media


LAGUNAK / AMISTADES



AISIA / USO DEL TIEMPO LIBRE



AUTONOMIA / AUTONOMÍA




ESKOLABIZITZA / VIDA ESCOLAR




- % 80 inguru oso pozik daude: dituzten gauzeekin, beren etxearekin, beraiekin bizi diren pertsoekin, lagunekin, osasunarekin eta beren herri edo auzoekin.
- Haur eta nerabeen % 8 eta % 14 artean oso gutxi edo nahiko pozik daude honako hauekin: libre duten denbora, helduek nola entzuten dieten, eskolan ikasitakoak, seguru zenbateraino sentitzen diren, ikasle-bizitza eta beren gorputza.

ONGIZATEAREKIN ETA BIZI-KALITATEAREKIN ERLAZIONATUTAKO
ALDERDIEKIKO GOGO BETETZE MAILA



FAMILIA-BIZITZAN

- **Beraikein bizi diren pertsonetikiko** gogobetetze maila oso handia da: % 85,7 oso pozik daude, eta oso gutxi edo neurri batean pozik agertzen direnak, berriz, % 2,9 dira.
- Ez dago alderik nesken eta mutilen artean, baina bai **adinaren** arabera: 12 eta 14 urte bitartekoen % 79,5 oso pozik dago berekin bizi diren pertsonekin.
- **Guraso bakarreko** familietan bizi diren pertsonak ez daude hain pozik (9,0 puntu batez beste)




- **Ondoen baloratutako alderdiak** honako hauek dira: etxean hautemandako segurtasuna, senideengandik jasotzen duten laguntza eta familian igarotzen duten denbora.
- **Hobetzeko tarterik handiena duten alderdiek** parte hartzeko aukerarekin dute zerikusia: gurasoek entzun egiten didate eta esaten dudana kontuan hartzen dute, eta gurasoek eta nik elkarrekin hartzen ditugu nire bizitzari buruzko erabakiak.
- **Nerabeak** ez daude hain pozik alderdi guztietan.

FAMILIA-BIZITZAREKIN
ERLAZIONATUTAKO HAINBAT
ALDERDIREKIKO ADOSTASUN
MAILA



- Nahiko edo guztiz ados / Bastante o totalmente de acuerdo
- Gutxi gorabehera ados / Más o menos de acuerdo
- Batere edo ia batere ados ez / Nada o poco de acuerdo



Seguru sentitzen naiz etxean / Me siento segura/o en casa

Arazo bat badut, familiako norbaitek lagunduko dit / Si tengo un problema, alguien de mi familia me ayudará


Nire familian oso ondo pasatzen dugu denok elkarrekin / En mi familia nos lo pasamos bien todas/os juntas/os


Nire gurasoek entzuten didate eta kontuan hartzen dute nik esandakoa / Mis madres y/o padres me escuchan y tienen en cuenta lo que digo

Nire gurasoek eta nik elkarrekin hartzen ditugu nire bizitzari buruzko erabakiak / Mis madres y/o padres y yo tomamos decisiones sobre mi vida conjuntamente



ONGIZATE MATERIALEAN

- **Dituzten gauzekiko eta beren etxearekiko** gogobetetze maila oso handia da: % 86,7 oso pozik dago duenarekin eta % 85,3 bere etxearekin. Kontrako aldean, % 2,3 eta % 2,9 inguru, hurrenez hurren, oso gutxi edo nahiko pozik daude bi alderdi horiekin.
- Dimentsio horretan emaitza onak izan diren arren, nabarmentzekoa da % 20,5 sarritan edo beti arduratzen dela familiak duen **diruaz**.
- **Neskek** eta **mutilek** antzera baloratzen dituzte, baina **nerabeek** batezbestekoaren azpitik: % 82,4 oso pozik daude dituzten gauzekin, eta % 79,6 beren etxearekin.
- **Guraso bakarreko familietan** bizi diren pertsonak ez daude hain pozik beren ongizate materialarekin: dituzten gauzak (batez beste 9,1 puntu) eta beren etxea (batez beste 8,9 puntu).





ONGIZATE MATERIALERAREKIN
LOTUTAKO ELEMENTU BATZUK
ETXEAN ESKURAGARRI IZATEA



- **Bere gela:** 10 urtetik gorako haur eta nerabeen % 72,9k bere gela dute, hau da, % 27,1ek ez.
- **IKTak:** la etxe guztietan **Internet** dago (% 97,6) eta horietako askok **ordenagailua edo tableta** dute (% 88,4). Haur eta nerabeen % 60,2k du **telefono mugikorra**, eta 12 urtetik aurrera, % 94k.



Oporrak /
Vacaciones

* Batezbestekoa /
Promedio

* **2,9**



Ikasteko idazmahairik gabe / Sin escritorio para estudiar

% 4,9



Kirola egiteko materialik gabe / Sin material para hacer deporte

% 4,6



Eskolarako materialik gabe / Sin materiales para el centro educativo


% 3,4

- **Ikasketak:** Haur eta nerabeen % 4,9k ez dute ikasteko **idazmahairik**, eta % 3,4 inguruk gabezia batzuk izan ditzakete behar dituzten **eskola-materialei** dagokienez.
- **Aisia eta kirola:** Gipuzkoako haur eta nerabeen % 91,6k **bizikleta** du, baina baliteke % 4,6k **kirola** egiteko material egokirik ez izatea. Gipuzkoan haurrak eta nerabeak dituzten familiak batez beste 3 aldiz joan dira oporretara azken urtean.



OSASUNEAN

- Haur eta nerabeen % 83,9 oso pozik dago bere osasunarekin eta % 77,4 bere gorputzarekin.
- Nesken eta mutilen arteko alderik handiena beren gorputzarekin lotuta dago (oso pozik daude nesken % 72,9 eta mutilen % 82,4).
- Adinaren arabera aldeak nabarmenak dira. 12 eta 14 urte bitarteko pertsonen ehunekoak askoz baxuagoak dira, batez ere beren gorputzari dagokionez (% 56,7 oso pozik daude).
- Guraso bakarreko familietakoak direnak beren osasunarekin (batez beste 8,7 puntu) eta beren gorputzarekin (batez beste 7,6 puntu) gogobetetze txikiagoa dute.





- Azken 2 asteetan, 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeen erdiak (% 52,2) estresa sentitu du maiz, eta % 17,3k tristura. Nesken egunerokoan, estresa mutilen eta adin handiagoa dutenen artean baino nabariagoa da.

- 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeen % 65,7 **zoriontsu** sentitu da. Ehunekoak zertxobait murrizten da nesken artean (% 63,7) eta asko murrizten da **12 eta 14 urte bitartekoen** artean (% 50,4).




- Oso handia / Muy alta (9-10)
- Handia / Alta (7-8)
- Neurri batean / Moderada (5-6)
- Txikia edo oso txikia / Baja o muy baja (0-4)







AUTONOMIAN

- Pertsonen % 72,4 oso pozik daude **duten askatasunarekin**; % 69,6 **sentitzen duten segurtasunarekin** eta % 62,1 **helduek entzuten dioten moduarekin**.
- **Nesken eta mutilen** arteko alderik handiena hautemandako segurtasunean dago (oso pozik daude nesken % 66,7 eta mutilen % 72,6).
- Adinaren arabera aldeak nabarmenak dira. **12 eta 14 urte bitarteko** pertsonen ehunekoak askoz baxuagoak dira askatasunari dagokionez (% 60,1 oso pozik daude), sentitzen duten segurtasunari dagokionez (% 59 oso pozik daude) eta entzuten dieten moduari dagokionez (% 46,1 daude oso pozik).
- **Guraso bakarreko** familietako kide direnek gogobetze maila txikiagoa dute alderdi guztietan, batez ere duten askatasunari dagokionez (batez beste, 8,2 puntu).



ESKOLA-BIZITZAN


- Haur eta nerabeen % 67 oso pozik dago ikaskideekin, % 65,4 ikasle-bizitzarekin eta % 61,1 ikasten dituen gauzeekin.
- 12 urtetik gorakoen artean, ehunekoak % 55,8, % 45 eta % 37,8 dira, hurrenez hurren.
- Garrantzitsua da kontuan hartzea % 11,5ek maila baxuan edo neurri batean puntuatzen dituela ikasitakoak, % 10,4k ikasle-bizitza eta % 6,2k gelako ikaskideak.
- % 33,6 oinez joaten da lagunekin eskolara



- **Ondoen baloratutako alderdiak** honako hauek dira: ikastetxean sentitzen duten segurtasuna, irakasleen laguntza arazoren bat dutenean eta gainerako ikaskideen laguntza.
- **Balorazio txarrean** jaso dutenen artean, parte-hartzearekin lotutakoak nabarmentzen dira: % 23,5ek uste du irakasleek ez diotela behar adina entzuten, eta % 26,8k uste du erabakiak hobeto har daitezkeela.




- Nahiko edo guztiz ados / Bastante o totalmente de acuerdo
- Gutxi gorabehera ados / Más o menos de acuerdo
- Batere edo ia batere ados ez / Nada o poco de acuerdo





LAGUNEN ESPARRUAN


- **Lagunekiko** gogobetetze maila oso handia da: haur eta nerabeen % 81,5 oso pozik daude, eta % 3,1ek baino ez du gogobetetze maila oso txikia edo neurri batekoa.
- Haur eta nerabeen % 74,4k egun gehienetan eskolatik kanpo lagunak ikusten ditu, % 21,8k astean behin edo bitan eta % 3,8k inoiz ez.
- Ohikoagoa da **udalerr**i txikietan bizi direnek elkar ikustea (% 80,7k egun gehienetan eskolatik kanpo lagunak ikusten ditu).



- Haur eta nerabeen % 90 inguruk uste dute nahikoa lagun dituztela, arazo bat izanez gero lagun horiek lagunduko dietela, ondo tratatzen dituztela eta haiekin egiten dituzten jarduerak gustatzen zaizkiela eta asko dibertitzen direla.
- Mutilek (% 77) neskek (% 68,4) baino gehiago uste dute erraza dela lagun berriak egitea.
- % 57,3k dio bere lagunik onenen ohiturak eta jatorriak ez direla bereak bezalakoak.

LAGUNEKIN ERLAZIONATUTAKO


HAINBAT ALDERDIREKIKO ADOSTASUN MAILA






AISIAN

- **Beren aisialdian egiten dituzten gauzekiko** gogobetetze maila handia da: % 75,4 oso pozik daude, baina % 5,3 ez daude batere pozik edo ia batere pozik.
- **Libre duten denborarekiko** gogobetetze maila txikiagoa da: % 56,5 oso pozik daude, eta % 13,8 ez daude batere pozik edo ia batere pozik.
- Bi alderdietan **nesken** gogobetetze maila **mutilena** baino txikixeagoa da eta libre duten denborari dagokionez, bereziki, **nerabeena** (% 42 daude oso pozik edo gustura).
- % 37,4k uste du beti ez duela nahi dituen gauzak egiteko **nahikoa denbora**. % 73,3ri **familiarekin** denbora gehiago igarotzea gustatuko litzaioke, eta % 75,9ri **lagunekin** denbora gehiago igarotzea.




- % 78,3k uste du **bere kabuz erabaki dezakeela zer egin bere aisialdian**, eta horrek esan nahi du hamarretik bik uste dutela beren maniobra-marjina txikia dela.
- Egunero % 36,4k **telebista** ikusten du, % 32k **kirola** egiten du, % 27,2k eskolako **etxeko lanak egin eta ikasten du**, eta % 22k **etxeko lanetan** laguntzen du.
- Egunero telebista ikusten duten (% 41,7), bideojokoetan jokatzten duten (% 21,1) eta kirola egiten duten (% 43,2) **mutilen** ehunekoa neskena baino nabarmen handiagoa da (% 31; % 8,5 eta % 20,9, hurrenez hurren). Aldiz, ohikoagoa da **neskek** egunero ikastea (nesken % 29,9k ikasten dute, eta mutilen % 24,8k).





AUZOAN/HERRIAN

- Beren herriarekiko edo auzoarekiko gogobetetze maila orokorra handia da: % 78,8 oso pozik daude eta % 4,6 baino ez dira gogobetze maila oso txikia edo nahiko txikia dutenak.
- % 64,3 nahiko edo oso pozik daude beren inguruan beren adineko jendearentzat dauden jardurekin, hau da, % 12,6k hobetzeko tarte handia ikusten du.
- Zaharrenak eta udalerrri handietan bizi direnak ez daude hain pozik (8,7 eta 9,1, hurrenez hurren).
- % 36,4k bakarrik adierazi du bere inguruko jardueri eta beste gai batzuei buruzko erabakiak hartzeko eta parte hartzeko interesa duela.




- Hauek dira balorazio onena jaso duten alderdiak: bizilagunekiko harremanak, segurtasuna eta helduen tratua.
- Okerren baloratutako alderdiak honako hauek dira: arazo baten aurrean bizilagunen laguntza, herriko bizitzan parte hartzea eta mugitzeko askatasuna.

- **Neskek** okerrago baloratzen dute segurtasuna (% 71,3 nahiko seguru edo oso seguru sentitzen da) eta parte hartzeko marjina (% 49,5 parte-hartzearekin nahiko edo oso ados dago).

**BERE AUZO EDO HERRIAREKIN
ERLAZIONATUTAKO HAINBAT
ALDERDIKIKO ADOSTASUN MAILA**



- Nahiko edo guztiz ados / Bastante o totalmente de acuerdo
- Gutxi gorabehera ados / Más o menos de acuerdo
- Batere edo ia batere ados ez / Nada o poco de acuerdo



4. BESTE ALDERDI BATZUK






BERDINEN ARTEKO INDARKERIA



- Indarkeriarik ohikoena **hitzezkoa** da (% 26,8k esan du azken hilabetean bitan edo gehiagotan irainak jaso dituela), eta ondoren, **fisikoa** (% 21,1) eta **marjinazioa** eta **isolamendua** (% 15,1). Badirudi hedatuago dagoela beren burua **ez-binariotzat** jotzen dutenen artean.





SEXU-HEZKUNTZA



- 12 urtetik gorako neskek eta mutilek sexuari buruzko informazioa bilatzen dutenean, **lagunengana** (% 30,4) jotzen dute gurasoengana (% 16,9) edo Internetera (% 12,6) baino lehen. **Bikotekidearekin** lotutako gaiak (% 30,3) eta **sexu-aniztasuna** (% 17,8) dira interes handiena sortzen dutenak.




BERDINTASUNA



- Nesken % 54,7 nahiko edo asko kezkatzen ditu **desberdintasunak eta matxismoak**, eta aldiz mutilen % 37,7.




EUSKARA



- Bi haur edo nerabetik ia batek nahiago du euskara erabili, gaztelania baino, lagunekin hitz egiteko. Euskararen erabilera errotuago dago **udaleri txikietan** (haur eta nerabeen % 70ek nahiago du euskara erabili) handietan baino (% 41,2).



ESKUBIDEAK



- Gipuzkoako haur eta nerabeen % 60 inguruk ez daki zein diren Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideak.

5. EKINTZARAKO ORIENTABIDEAK

- **Guraso bakarreko familiek gainerako familiek baino erronka konplexuagoei egin behar diete aurre;** beraz, zentzuzkoa dirudi familia horientzako laguntza-baliabideak indartzea eta, bazterketa-arriskuari dagokionez, gainerako etxeekiko tartea murriztea.
- **Neskek eta mutilek ez dute beren ongizatea modu berean ebaluatzen.** Garrantzitsua da haurrei eta nerabeei zuzendutako programak eta ekimenak diseinatzean, gauzatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegia kontuan hartzea.
- **Ongizateak behera egiten du DBHko 1. maila egiten hasten direnean.** Funtsezkoa da nerabeen ongizate maila handituko duten berariazko neurriak bultzatzea.
- **Haurren eta nerabeen parte-hartzea erronka argia da.** Funtsezkoa da haur eta nerabeen parte-hartzea maila guztietan sustatuko duten programa eta proposamen berriak antolatzea.
- **Aisialdi eta denbora liberrik ez izateak eragin kaltegarria izan dezake osasunean eta ongizate emozionalean.** Komenigarria litzateke ekosistema berri bat sustatzea, haurren eta nerabeen aisialdirako eskubidea, atsedeen aktiboa eta sozializazioa bermatzeko.
- **Adiskidetasun-harremanak gero eta ohikoagoak dira ohitura eta jatorri desberdinak dituzten haur eta nerabeen artean.** Komeni da gizarteratzea eta bizikidetzeta sustatzeko programak bultzatzen jarraitzea, gero eta haur eta nerabe gehiago ohitura eta jatorri desberdinak dituzten pertsonekin bizi diren une honetan, eta arreta aniztasunean jartzea balio sozial gisa.

